



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

Saio zk. / N° sesión: 6/2024

**Dokumentua:** Akordioaren ziurtagiria  
**Kide anitzeko organoa:** Osoko Bilkura  
**Zerbitzua:** Idazkaritza

**Documento:** Certificado de acuerdo  
**Órgano colegiado:** Pleno  
**Servicio:** Secretaría

**ZIURTATZEN DUT.** - Osoko Bilkura Ezohikoa Urgentea bilkuran, 2024/09/12 egunean, Udalbatza osatzen duten kideek eztabaidatu ondoren, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

**CERTIFICO.** - Que en la sesión Extraordinaria Urgente celebrada por Pleno de esta Corporación Municipal, el día 12/09/2024, tras la deliberación por los miembros presentes que legalmente la componen, se adoptó entre otros, el siguiente acuerdo:

**9. ETXEKO ANIMALIEN BABESA, ONGIZATEA ETA EDUKITZE ARDURATSUA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.**

**9. ORDENANZA REGULADORA DE LA PROTECCION, BIENESTAR Y TENENCIA RESPONSABLE DE LOS ANIMALES DE COMPAÑÍA.**

**GINARRIA:** Udalbatzak, 2004ko apirilaren 2an egindako bilkuran, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza onartu zuela.

**VISTO:** Que el Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada en fecha 02 de abril de 2004, aprobó la Ordenanza reguladora de tenencia y protección de animales.

**AINZAT HARTUTA:** Igarotako denbora eta legegaldaketak direla eta, ordenantza berri bat garatu behar da, konpainiako animalien babesa, ongizatea eta edukitze arduratsua arautzeko.

**CONSIDERANDO:** Que debido al tiempo transcurrido y las modificaciones legislativas producidas, cabe desarrollar una nueva ordenanza reguladora de la protección, bienestar y tenencia responsable de los animales de compañía.

**GINARRI JURIDIKOA:** Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua araberan,  
.- lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunen web-atariaren bidez. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik adierazgarrien iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

**CONSIDERANDO:** Que de conformidad con el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común,  
.- con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Egon daitezkeen ordezko irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak.

- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- Los objetivos de la norma.
- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalategitza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

.- ekimenaren testua idatzi aurretik kontsulta egiteari kalterik egin gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoen eragiten dienean, zuzendaritzazentrotarantz eskudunak dagokion web-atarian argitaratuko du testua, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarri guztiak biltzeko. Era berean, zuzenean eskatu ahal izango da arauak ukitzen dituen eskubide eta interes legitimoak dituzten eta arauaren xedearekin zuzenean lotura duten helburuak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde edo elkarten iritzia.

.- artikulua honetan araututako kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa arauaren hartzaile izan daitezkeenek eta hari buruzko ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izan dezaten moduan egin beharko da. Horretarako, beren esku jarri beharko dituzte beharrezko dokumentuak, argiak eta zehatzak izango direnak, eta gaiari buruzko iritzia eman ahal izateko behar den informazio guztia bildu beharko dute.

**GINARRI JURIDIKOA:** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 15. artikulua araberan, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukeraberdtasunaren printzipioak botere publiko guztien jardunaren berri emango du, zeharka. Administrazio publikoek aktiboki integratuko dute, beren arau-xedapenak hartu eta betearaztean, eremu guztietako politika publikoen definizioan eta aurrekontuetan, eta beren jardura guztien garapenean.

**GINARRI JURIDIKOA:** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 19. artikulua araberan, Arauak, planak, programak eta politika publikoak, kontratuak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk

.- sin perjuicio de la consulta previa a la redacción del texto de la iniciativa, cuando la norma afecte a los derechos e intereses legítimos de las personas, el centro directivo competente publicará el texto en el portal web correspondiente, con el objeto de dar audiencia a los ciudadanos afectados y recabar cuantas aportaciones adicionales puedan hacerse por otras personas o entidades. Asimismo, podrá también recabarse directamente la opinión de las organizaciones o asociaciones reconocidas por ley que agrupen o representen a las personas cuyos derechos o intereses legítimos se vieren afectados por la norma y cuyos fines guarden relación directa con su objeto.

.- la consulta, audiencia e información públicas reguladas en este artículo deberán realizarse de forma tal que los potenciales destinatarios de la norma y quienes realicen aportaciones sobre ella tengan la posibilidad de emitir su opinión, para lo cual deberán ponerse a su disposición los documentos necesarios, que serán claros, concisos y reunir toda la información precisa para poder pronunciarse sobre la materia.

**GINARRANDO:** Que de conformidad con el artículo 15 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, el principio de igualdad de trato y oportunidades entre mujeres y hombres informará, con carácter transversal, la actuación de todos los Poderes Públicos. Las Administraciones públicas lo integrarán, de forma activa, en la adopción y ejecución de sus disposiciones normativas, en la definición y presupuestación de políticas públicas en todos los ámbitos y en el desarrollo del conjunto de todas sus actividades.

**GINARRANDO:** Que de conformidad con el artículo 19 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, los poderes públicos vascos han de tener en cuenta de manera activa el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de las normas y de los planes, programas y otros ins-

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalategitza-araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

egin eta aplikatzerakoan, euskal herri-agintek modu aktiboan hartu behar dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua.

**OINARRI JURIDIKOA:** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikulua araberako, arau bat egiteko unean, euskal administrazio publikoek, arau hori sustatzen duen administrazio-organoren bitartez, ebaluatu egin behar dute proposamenak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du arauan proiektatutako jarduerak ondorio positiboak edo txarrak izan ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

Aurrenekoa ikusita, Udaltzako, aho batez, zera erabakitzen du:

**LEHENA.-** Kontsulta publikoa irekitzea hogeita egun baliogabe epean, konpainiako animalien babesa, ongizatea eta edukitza arduratsua arautzen duen ordenantza izapidetzeko buruzko informazio guztia udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (ERANSKINA).

**BIGARRENA.-** Goian aipatutako Ordenantzaren ziri-riborroaren genero-eraginaren ebaluazioa egitea.

Horrela ateratzen da dagokion aktatik, behin betiko onspena izan arte.

Eta jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut gaur, 2024/09/16.

trumentos de formulación de políticas públicas, así como de los contratos, de los programas subvencionales y de los actos administrativos.

**CONSIDERANDO:** Que de conformidad con el artículo 20 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en el momento de acometer la elaboración de una norma, las administraciones públicas vascas, a través del órgano administrativo que lo promueva, han de evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en la de los hombres. Para ello, ha de analizar si la actividad proyectada en la norma puede tener repercusiones positivas o adversas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad.

Visto lo anterior, el Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

**PRIMERO.-** Abrir consulta pública por plazo de veinte días hábiles, contados a partir del siguiente a la publicación en la página web municipal de toda la información referente a la tramitación de la ordenanza reguladora de la protección, bienestar y tenencia responsable de los animales de compañía (ANEXO).

**SEGUNDO.-** Formular la correspondiente evaluación de impacto de género del borrador de la Ordenanza arriba meritada..

Así resulta del acta correspondiente, a reserva de su definitiva aprobación.

Y para que conste extendiendo la presente certificación, a 16/09/2024.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA, Egiazatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitzeko helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza-araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

Idazkaritza

La Secretaría

**ETXEKO ANIMALIEN BABESA, ONGIZATEA ETA EDUKITZE ARDURATSUA ARAUTZEN**  
**DITUEN UDAL ORDENANTZA**

**I. TITULUA: XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

**I. KAPITULUA: XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Baztertutakoak.

**II. KAPITULUA: DEFINIZIOAK**

3. artikulua. Definizioak.

**II. TITULUA: ETXEKO ANIMALIAK EDUKITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA**

**I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK**

4. artikulua. Etxeko animalien titularren edo arduradunen betebeharrak.
5. artikulua. Debekuak.
6. artikulua. Etxeko animaliak ibilgailu partikularretan garraiatzea.

**II. KAPITULUA: PERTSONEN ETA ETXEKO ANIMALIEN ARTEKO BIZIKIDETZA ARDURATSUA**

7. artikulua. Etxeko animaliak bide eta espazio publikoetan sartzea, gidatzea eta egotea.
8. artikulua. Txakur-espezieko animalien aisialdirako guneez espezifikoko espazio publikoetan.
9. artikulua. Gorozkiak eta mikzioak bide eta espazio publikoetan.
10. artikulua. Establezimendu eta lokal publikoetara eta garraio publikoetara sartzea.
11. artikulua. Pertsonen eta etxeko animalien arteko bizikidetzaren arduratsua espazio pribatuetan.

**III. TITULUA: ETXEKO ANIMALIAK IDENTIFIKATZEA, AIEORI JAKINARAZTEA ETA OSASUN KONTROLA EGITEA.**

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelakeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	16/09/2024 13:06



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

I. KAPITULUA: IDENTIFIKAZIOA

12. artikulua. Identifikazioa eta erregistroa.
13. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Etxeko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) egindako datu-aldaketen jakinarazpena, albitari profesional elkargokidearen bidez.

II. KAPITULUA: ETXEKO ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

14. artikulua. Amorreriaren aurkako txertaketa.
15. artikulua. Txakur erasotzaileen kontrola.
16. artikulua. Txakurrak edukitzeko baldintza bereziak izatea.
17. artikulua. Etxeko animalien esterilizazioa.

III. KAPITULUA: OSASUN PUBLIKOA

18. artikulua. Etxeko animalien hilotzak jasotzea eta desagerraraztea.
19. artikulua. Elikagaiak bidean uztea, animaliei jaten emateko.

IV. TITULUA: ETXEKO ANIMALIAK BIDE PUBLIKOAN JASOTZEA, ATXIKITZEKO EPEAK ETA BERTAN BEHERA UTZI IZANAREN ADIERAZPENA

20. artikulua. Etxeko animaliak bide publikoan jasotzea.
21. artikulua. Bide publikotik jasotako etxeko animalien titularrak edota arduradunak aurkitzea, atxikitze-epeak eta abandonu-adierazpena.

V. TITULUA: KALE KATUAK

22. artikulua. Katu komunitarioen populazioa kontrolatzea.
23. artikulua. Udalak aitortutako katu-koloniak.
24. artikulua. Katu komunitarioen errolda.
25. artikulua. Animaliak Babesten dituzten Elkaratekiko lankidetzak sustatzea.

VI. TITULUA: ETXEKO ANIMALIEN BABES ETA DEFENTSARAKO ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK

26. artikulua. Elkarateak.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

VII. TITULUA: ZAINZA ETA IKUSKARITZA EGINKIZUNAK

27. artikulua. Ikuskaritza-jarduera.

VIII. TITULUA: ZEHAPEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA: PRINTZIPIO OROKORRAK, PROZEDURA ETA ESKUMENA

28. artikulua. Arduradunak.

29. artikulua. Zehapen-prozedura.

30. artikulua. Prozeduran interesa duten aldeak.

31. artikulua. Udal organo eskudunak.

32. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

33. artikulua. AIEOri egindako komunikazioak.

II. KAPITULUA: ARAU-HAUSTEAK

34. artikulua. Arau-hausteak.

III. KAPITULUA. ZEHAPENAK

35. artikulua. Zehapen nagusiak.

36. artikulua. Zehapen osagarriak.

37. artikulua. Zehapenen mailaketa.

IX. TITULUA: ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

38. artikulua. Erregimen orokorra.

39. artikulua. Arriskutsua izan daitezkeen animalia edukitzeko lizentzia.

40. artikulua. Lizentzia egiaztatzen duen agiria.

41. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroa.

42. artikulua. Inskripzioa egiaztatzen duen agiria.

43. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroari egindako komunikazioak.

44. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko betebeharrak eta debeku espezifikoak.

45. artikulua. Salbuespenak.

46. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko arau-hauste espezifikoak.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

47. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei dagozkien xedapen espezifikoak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA

ERANSKINAK

**I. TITULUA**

**XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

**I. KAPITULUA XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

**1. artikulua.- Xedea.**

1. Ordenantza honen xedea da Barrundiako udalerrian dauden etxeko animalien babesa, ongizatea eta edukitza arduratsua bermatzeko araubide juridikoa ezartzea, bertan erroldatuta edo erregistratuta egon edo ez, eta horien titular edo arduradunen bizilekua edozein izanda ere.
2. Ordenantza hau etxeko animaliei aplikatuko zaie, batez ere txakurrei, katuei eta hudoei. Baita etxeko animali laguntzaileei eta exotikoei ere, gizakiak mantentzen dituenak, batez ere etxean, aisialdirako eta konpainiarako helburu nagusiekin. Ez da aplikagarria izango kontsumitzeko, ekoizpenak aprobetxatzeko edo edozein industria-erabilera edo beste edozein merkataritza edo irabazi-helbururako animaliak direnean.
3. Era berean, arriskutsuak izan daitezkeen etxeko animaliak edukitzeko araubide espezifikoa ezarri da.

**2. artikulua.- Baztertutakoak.**

1. Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira eta beren araudi propioaren arabera arautuko dira.
  - a) Ehiza.
  - b) Arrantza.
  - c) Basafauna bere ingurune naturalean kontserbatzea eta babestea.
  - d) Zezen-ikuskizun arautuak.
  - e) Ganadua, hau da, elikadurarako etxeko animaliak haztea, beste administrazio publiko eskudunek kontrolatuta.
  - f) Etxeko animaliak erabiltzea esperimentaziorako eta beste helburu zientifikoetarako.
  - g) Hiri-izurriteak eta horien tratamendua.
  - h) Gune zoologikoak.
  - i) Etxeko animaliak salerosi eta saltzea.
  - j) Etxeko animaliak erakusten edo parte hartzen duten jendaurreko ikuskizunak eta jolas-

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitzekena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

jarduerak.

2. Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira, halaber, araudiak beste administrazio publiko batzuei esleitzen dizkien etxeko animaliei buruzko eremuak.

## II. KAPITULUA.- DEFINIZIOAK

### **3. artikulua.- Definizioak.**

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek jasotzen dira:

1. **Etxeko animaliak:** gizakiak mantentzen dituen animalia guztiak, batez ere etxean, aisialdirako eta konpainiarako helburu nagusiekin. Baldin eta ongizate-baldintza onetan eduki badaitezke eta beharizan etologikoak errespetatzen badituzte, beren gatibutasunera egokitu badaitezke, eta animalia horiek edukitzeak ez baditu bere produktuak kontsumitzea edo aprobetxatzea edo edozein erabilera industrial edo beste edozein merkataritza edo irabazi-helburu. Txakur eta katu guztiak barne hartzen dira, baita hudoak ere, haien erabilera eta bizi diren lekua edozein izanda ere.
2. **Etxeko animalia laguntzaileak:** beren gaitasun fisiko, sen eta temperamentuagatik hautatuak, pertsoneri jarduera arautuan edo zeregin jakin batean laguntzeko trebatzen diren etxeko animaliak, hala nola, zaintza eta jagoletza-txakurrak, artzain-txakurrak, laguntza-txakurrak, ehiza-txakurrak edo -hudoak, trufak bilatzeko txakurrak, erreskate-txakurrak eta segurtasun-indar eta kidegoek erabilitako txakurrak, baita falkoneriako hegaztiak ere.
3. **Etxeko animalia exotikoak:** bertakoa ez den espezie bateko animalia oro, gizakiaren mende eta harekin bizi dena eta aisialdirako eta konpainiarako lege zehaztutako dagoena. Ordenantza honen ondorioetarako, halakotzat hartuko dira etxeko animaliak babesteari buruzko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen eranskinaren B zatian sartuta dauden etxeko animaliak.
4. **Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak:** basa-faunakoak izan eta etxeko animalia gisa erabiltzen diren guztiak, haien oldarkortasuna edozein dela ere, pertsoneri edo etxeko beste animalia batzuei heriotza edo lesioak eragiteko gaitasun handiagoa duten espezie edo arrazetakoak badira. Baita ondasunei kalteak eragiten dizkietenak ere.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira, halaber, araudi bidez zehazten diren etxeko animaliak eta, bereziki, arraza-tipologia baten barruan dauden txakurrak, baldin eta, beren izaera oldarkoragatik, tamainagatik edo masailezurraren potentziagatik, pertsoneri edo etxeko beste

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalategitza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx





**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

animalia batzuei heriotza edo lesioak eragiteko gaitasuna badute eta ondasunei kalteak eragiten badizkiete.

5. Banaka identifikatutako etxeko animalia: agintari eskudunek aitortutako markatze-sistemaren bat daramanan, dagokion erregistroan alta emanda dagoen, eta titularrak horren nahitazeko identifikazio-dokumentazioa duen animalia.

6. Etxeko animalia galdua: identifikatuta edo identifikatu gabe egonik, bide publikotik norako zehatzik eta titularraren edo arduradunaren kontrolik gabe doan animalia.

7. Lapurtutako etxeko animalia: titularrak edo arduradunak horren lapurretaren berri eman duen animalia, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

8. Abandonatutako etxeko animalia: bere jatorria, titularra edo arduraduna identifikatuta egon edo ez, bide publikotik jaso den animalia oro, kontrolik gabe ibiltzeagatik, eta titularrak edo hark baimendutako beste pertsona batek bilketa-zentrotik berreskuratu ez duena, Ordenantza honetan ezarritako epeetan.

9. Tratu txarrak: zaintzan, albaitaritza-arretan edo elikaduran nahita egindako edozein jokabide, bai ekintzaz, bai ez-egitez, baldin eta etxeko animalia bati alferrikako mina, sufrimendua edo lesioa eragiten badio eta haren osasunari kalte egiten edo heriotza eragiten badio, legez babestuta ez dagoenean.

10. Titularra: espezieentzat eraturako erregistro ofizialetan halakotzat agertzen den pertsona fisikoa edo juridikoa. Erregistroan inskribatzeko aukerarik ez badago, Zuzenbidean onartutako edozein metodoren bidez inguruabar hori froga dezakeena hartuko da titulartzat.

11. Etxeko animalia arduraduna edo animalia daukana: nahitaz titularra edo jabea izan gabe, aldi baterako edo behin betiko, animalia zaintzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

12. Katu komunitarioa: Felis catus espezieko gizabanako bat, askatasunean bizi dena, jaberik ez daukana baina lurralde bati lotuta dagoena, gizakiekin elkarreragiten ez duena sozializazio-maila txikia duelako edo batere sozializaziorik ez duelako, eta bizitza hiriguneen inguruan garatzen duena bizirik irauteko.

13. Hiriko Katu kolonia: udalerriko eremu publiko jakin batean kokatuta dauden eta askatasun- edo erdi-askatasun -egoeran bizi diren katu komunitarioen multzoa.

14. Gune zoologikoa: etxeko animaliekin ostatu hartzen, mantentzen, hazten edo merkaturatzen duen zentro, establezimendu edo instalazio oro, jarduera nagusia hori izan

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotioz-araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	16/09/2024 13:06



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

ala ez, eta merkataritza-helburua duen alde batera utzita. Definizio horretatik kanpo geratzen dira harrera-etxeak eta albaitaritza-zentroak. Azken horien artean sartzen dira kontsultategiak eta ospitaleak edo klinikak.

15. Bilketa-zentroa: jaso diren, galdu diren edo titularrek abandonatutako etxeko animaliei aldi baterako ostatu emateko lekua, harik eta titularrak edo arduradunak jaso arte, edo hirugarren batek adoptatu arte.

16. Harrera-etxea/zentroa: bilketa-zentro bati lotutako eta bere menpe diharduen etxebizitza partikularra, erregistratuta dagoena. Bertan, galdutako edo aldi baterako zaintzapean utzitako etxeko animaliak hartzen dira, eta horien zaintza, arreta eta mantentzea bermatzen da, higiene eta osasun-baldintza onetan, titularrek jaso, beste batek adoptatu edo Bilketa-zentrorra itzuli arte.

17. Animalientzako babeslekua: agintari eskudunak baimendutako zentroa, edozein izen dutela ere, jaso, galdu, konfiskatu, abandonatu, erreskatatu edo titularrek beren borondatez entregatutako animalien egonaldi iraunkorren eta mantentzean aritzen dena. Bertan jarraitzen dute titularrek jaso edo beste batek adoptatu arte baina animaliak ezingo dira saldu edo horiei probetxua atera.

18. Hilketa: animalia bati eragindako heriotza, beren osasunarekin zein osasun publikoa, segurtasuna, ingurumena edo ondare artistiko eta arkitektonikoa babestearekin zerikusia duten arrazoiengatik. Albaitariak egin behar du, ahalik eta sufrimendu txikiena eragiten duten metodoen bidez, odolik eta minik eragin gabe eta ahalik eta min txikienarekin.

19. Eutanasia: albaitariak odolik eta minik eragin gabe animalia bati eragindako heriotza, pairamen fisiko baten edo portaera-nahaste latz, jarraitu eta itzulezin baten ondorioz alferrikako sufrimendua saihesteko.

20. Animalien babes eta defentsarako elkarte: irabazi-asmorik gabeko erakundea, legez eratua eta helburu nagusizat animaliak babestea duena.

21. Albaitari profesional ofiziala: administrazio publiko baten zerbitzura dauden albaitaritzako lizentziadunak edo graduatuak, indarrean dagoen araudiaren arabera Ordenantza honetan aipatzen diren funtzio jakin batzuk betetzeko ardura dutenak.

22. Albaitaritzako profesional baimendua edo gaitua: Albaitaritzako lizentziadunak edo graduatuak, agintaritza eskudunak araudi bidez ezartzen diren eginkizunak betetzeko aintzatetsiak.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelakeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/experta/validacion/Doc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	16/09/2024 13:06



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

23. Albaitari elkargokide profesionala: albaitaritzan lizentziaduna edo graduatua, dagokion elkargo ofizialean inskribatua, indarrean dagoen araudiaren arabera ordenantza honetan aipatzen diren funtzio jakin batzuk betetzeko ardura duena.
24. Edukitze arduratsua: legezko eta aldi baterako arduradunek beren gain hartu behar dituzten betebeharrak, baldintza eta konpromisoen multzoa, ongizatea, ordenantza honen aplikazio-eremuan sartzen diren etxeko animalien babeseta eta haien bizi-kalitatea bermatzeko eta ziurtatzeko, haien behar etologiko eta fisiologikoen arabera.
25. Animaliak adoptatzea: animalien titulartasuna transmititzea animalien babeserako zentro batek edo animaliak babesteko erakunde batek hirugarren baten alde, agiri bidez formalizatuta.
26. Lagapen iraunkorra: pertsona partikularren artean edo partikular batengandik harrera-zentro batengana animalien titulartasuna dohainik eskualdatzea, eta titular berriak bere gain hartzea animalia edukitzearen erantzukizun eta betebeharrak guztiak.
27. Aldi baterako zaintzapean lagatzea: pertsona fisiko batek aldi baterako bere gain hartzea animalia bat zaintzeko konpromisoa, eta behin betiko adoptatu arte edo animalia baten titularrak berreskuratu arte edo harrerari borondatez uko egin arte behar dituen higie- eta osasun-baldintzak bermatzea. Zaintza agiri bidez gauzatu beharko da.
28. Animalien ongizatea: animalia baten egoera fisikoa eta mentala, bizi den eta hiltzen den baldintzei dagokienez, Animalien Osasunerako Mundu Erakundeak zehaztutako baldintzetan.

## II. TITULUA

### ETXEKO ANIMALIAK EDUKITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA

#### I. KAPITULUA- ARAU OROKORRAK

#### **4. artikulua**.- Etxeko animalien titularren edo arduradunen betebeharrak

1. Etxeko animalia baten titularrak edo arduradunak erantzukizun hauek izango ditu:
- a) Haien babeseta, ongizatea eta segurtasuna, baita eragiten dituzten kalteak ere, Kode Zibilaren 1905. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ordenantza honen ez-betetzeak eta aplikatu beharreko arau-xedapenak.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelakeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalaregistro-araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

b) Beren titulartasunekoak diren etxeko animaliei bizi osorako zainketak bermatzea. Titularrak, edozein arrazoiengatik, ezin badio arreta eman, arduradun bat ziurtatuko du, edo etxeko animalia-aren titulartasunaren transferentzia bat egingo du.

1. Etxeko animalia baten titular edo arduradunak honako betebeharrak ditu:

- a) Etxeko animalia horiek sentikorra izatearen baldintzaren arabera eta espeziearen, arrazaren eta adinaren arabera tratatzea, haien behar fisiko eta etologikoen arabera, eta heziketa, gainbegiratze eta kontrol egokiak ematea, haien osasunaren eta ongizatearen erantzule izanik. Hori dela eta, behar adinako zaintzak eman beharko dizkiete eta mugitzeko askatasuna bermatuko diete, lotzeko sistema iraunkorrak saihestuz.
- b) Etxeko animalia-ari arrisku-egoerarik ez eragitea edo mina, beldurra edo estresa eragin diezaieketen egoerarik ez eragitea, laguntzako animaliak direnean izan ezik, zeregin osagarri zehatz hori betetzen duten bitartean.
- c) Edateko ura eta elikadura nahikoa eta orekatua eman nutrizio- eta osasun-maila onak mantentzeko.
- d) Egonaldi- eta ostatu-espazio bat izatea, aireztapen, hezetan, tenperatura, argitasun eta aterpe egoki eta beharrezkoak dituen, tamainaren eta pisuaren arabera, bizi-premiak asetzeko eta ongizatea lortzeko. Egonaldiaren eta ostatuaren gutxiengo tamainak indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
- e) Ostatuak osasungarritasun-baldintza egokietan edukitzea. Era berean, etxeko animaliak dauden lekuetatik atera behar dira gorotzak eta pixa.
- f) Behar den ariketa fisikoa ematea, baita behar fisiologiko eta etologikoei egokitutako arreta ere.
- g) Albaitaritza-tratamendu prebentiboak, aringarriak edo sendagarriak bilatzea, bai nahitaezkoak direnak, bai osasun-egoera onari eusteko beharrezkoak direnak.
- h) Etxeko animaliak kontrolik gabe ugaltzea saihesteko beharrezko neurriak hartzea.
- i) Indarreko araudiak identifikatzeko eta erregistratzeko eskatzen dituen etxeko animaliak identifikatzea eta erregistratzea.
- j) Etxeko animaliak espazio publikoetan edukitzea, beti kontrolatuta eta lotuta, beren espezieari, arrazari, tamainari eta etxeko animalia-aren beste ezaugarri batzuei egokitutako lotzeko elementuen bidez. Ezin izango dira espazio publikoetan egon edo ibili haien zaintzaz eta portaeraz arduratzen den pertsona batek aurrez aurre gainbegiratu gabe.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

Txakurren kasuan, hiriko bide eta espazio publikoetan, txakurraren ezaugarrietara egokitutako uhala izango dute, gehienez ere bi metro luze, ordenantza honetako 8. artikuluan aipatutako aisialdi-eremuetan izan ezik.

Etxeko animalia laguntzaileak paragrafo honen aplikazio-eremutik kanpo egongo dira, baldin eta ezarritako mugek eragozten badute etxeko animalia horien izaerari dagozkion funtzioak eta jarduerak egitea, eta horiek egiten diren bitartean.

- k) Behar diren neurriak hartzea, etxeko animalien jabetzak, edukitzeak edo zirkulatzeak kalterik eragin ez dezan, beldurra sor ez dezan, eragozpenak sor ez ditzan edo pertsoneri, etxeko animaliei edo gauzei arriskua, mehatxua edo kalteak eragin ez diezazkiekeen.
- l) Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea txakurrak edukitzeko eta araudi bidez zehazten diren espezieetarako.
- m) Ikuskaritza- eta kontrol-lanetan eskumena duen agintaritzak eskatutako datuak ematea edo informazioa ematea.
- n) Animalien erasoan kasuan, pertsona titularren edo arduradunek autoritatearekin kolaboratuko dutela.
- o) Txakurrei ezarritako edukitza-baldintza bereziak betetzea.
- p) Agintari edo Udal Organo eskudunak animalien ongizatea, osasun publikoa eta segurtasuna bermatzeko ematen dituen administrazio-errekerimenduak eta ebazpenak betetzea.
- q) Agintaritza eskudunaren aurrean salaketa jartzea eta AIEOri, bere albaitari gaituaren bidez, etxeko animalia bat galdu izanagatik desagertu dela jakinaraztea, gehienez ere 72 orduko epean, galera gertatu denetik zenbatzen hasita.
- r) Etxeko animalia bat lapurtu izanagatik desagertu dela salatzea agintaritza eskudunaren aurrean, egitatea gertatu eta gehienez ere 72 orduko epean. Halaber, AIEOri lapurretaren edo lapurretaren berri ematea, salaketa jarri eta gehienez 5 egun naturaleko epean.

### **5. artikulua.- Debekuak**

Debekatuta dago:

1. Etxeko animaliak hiltzea, legeak onartzen dituen hilketa- eta eutanasia-kasuetan izan ezik.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

2. Etxeko animaliei tratu txarrak ematea nahita, eta egitez edo ez-egitez alferrikako sufrimenduak, kalteak edo larritasuna eragin diezaiekeen edozein praktika egitea, baita haien heriotza ere. Bereziki, eta hobeto ulertzeko, era orientagarri gisa, etxeko animaliei tratu txarrak ematea, besteak beste, honako jokabide hauek izango dira:

a) Etxeko animaliei eraso egitea, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eraginez.

b) Zigor-lepokoak erabiltzea, hala nola pintxoak, itotzekoak, deskarga elektrikoak eta mina, ondoez fisikoa edota psikologikoa eragiten duen beste edozein lepoko. Hala ere, lepoko elektrikoak erabili ahal izango dira haien erabilera gaitutako trebatzaile profesionalak gainbegiratutako prestakuntzara mugatzen denean eta albaitariak baimentzen dutenean.

c) Ebakuntza kirurgikoak eta mutilazioak egitea, etxeko animalia baten itxura aldatzeko edo albaitaritza-medikuntzari dagokionez sendagarriak ez diren helburuak lortzeko. Bereziki, buztana eta belarriak moztea, ahots-kordak ebakitzea eta azazkalak eta hortzak erauztea. Salbuespen izango dira hiriko katu koloniak kontrolatzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren identifikazio-markak, albaitari profesional batek etxeko animalia osasuna eta ongizatea bermatzeko behar terapeutikoa izanez gero egiten dituen ebakuntza kirurgikoak, eta ugaltzea eragozten dutenak.

d) Alkohola, drogak edo botikak ematea justifikazio terapeutikorik eta albaitariaren agindurik gabe, nahitaezkoa denean, edo kalte fisiko edo psikikoak eragin diezazkiekeen edozein manipulazio artifizial egitea.

e) Etxeko animaliei tratu laidogarria ematea edo beren izaerari ez dagozkion portaera edo jarrera antinaturalak egitea, espeziearen ezaugarri etologiko eta fisiologikoekin bat ez datozenak.

f) Etxeko animaliak beren gaitasuna gaintzen duen edozein jardura egitera behartzea, batez ere gaixo dauden, nekatuta dauden, umedun dauden edo sei hilabete baino gutxiago dituzten etxeko animaliak direnean.

g) Etxeko animaliei elikagairik eta edaririk ez ematea, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eraginez.

h) Animaliei eraso edo tiro egin edozein armekin, material piroteknikoa botatzea animaliei eta orokorrean animalien ongizatea eta bizitza arriskuan jar dezaketen nahita egindako jokabideak.

1. Etxeko animaliak abandonatzea.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelakeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

2. Etxeko animaliak beren bizitza arriskuan jar dezaketen egoeretan mantentzea. Atal hau aplikatetik salbuetsita geratzen dira etxeko animalia laguntzaileak, xede duten funtzio zehatza betetzen duten bitartean.
3. Etxeko animalien artean indarkeriazko borrokak edo ekintzak bultzatzea, sustatzea edo antolatzea, edo horietan edozein modutan parte hartzea, baita horietan jokabide oldarkorrek sustatzea ere.
4. Etxeko animaliak tindatzea, dibertimendu edo jostailu gisa erakargarri egiteko.
5. Etxeko animaliak martxan dauden ibilgailuei lotuta eramatea.
6. Etxeko animaliak partikularren artean saltzeko haztea.
7. Etxeko edozein animalia 24 orduz jarraian bakarrik uztea, eta, txakur-espeziearen kasuan, epe hori ezin izango da ondoz ondoko 12 ordutik gorakoa izan, artzaintza-txakurrak izan ezik, lanean ari diren bitartean, eta gehienez ere 48 orduz jarraian.
8. Etxeko animaliak, biziak edo hilak, erabiltzea beste animalia batzuk elikatzeko.
9. Zauritutako animalia bat abandonatzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik; ibilgailuaren gidariak berehala jakinarazi beharko dio agintaritza eskudunari.
10. Etxeko animaliei beharrezkoak ez diren sufrimenduak edo kalteak eragin diezazkieketen elikagaiak edo substantziak ematea.
11. Bide publikoetan edo erabilera publikoko eremu pribatuetan substantzia toxikoak edo laguntza-animaliei sufrimendua edo alferrikako kalteak eragin diezazkieketen elementuak uztea.
12. Etxeko animaliak balkoietan, terrazetan, zabaltzetan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, trastelekuetan edo beste edozein lokaletan erabiltzea ohiko bizitoki gisa, edo modu iraunkorrean mantentzea, animalia-ongizatearen ikuspegitik etxeko animalientzat desegokia denean.
13. Etxeko animaliak ohiko ostatu gisa aparkatuta dauden ibilgailuetan edukitzea.
14. Etxeko animaliak aparkatuta dauden ibilgailuen barruan aldi baterako mantentzea, autokarabanak izan ezik. Aparkatuta dauden ibilgailuen barruan bakarrik egon ahal izango dira denbora tarte labur batez, betiere autoa itzalpean badago, leihatilak jaitsita, aireztapen nahikoa ahalbidetzeko, eta temperatura egokian, animaliarik kalterik edo sufrimendurik eragin gabe.
15. Etxeko animaliak etengabe lotuta edo ibilgetuta edukitzea. Baita ere etxeko animaliak lotuta edukitzea, mugitzea, etzatea, elikatzea, edatea eta babestea eragozteko moduan, beharrezkoa izanez gero.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

16. Etxeko animaliak adingabeei edo ezgaituei ematea edo lagatzea, guraso-ahala edo jagoletza duenaren baimenik gabe.
17. Etxeko animaliak erakusleihu komertzialetan edo bide publikotik ikus daitezkeen gunetan erakustea, erakargarri gisa.
18. Txakurrak, katuak eta hudoak ematea edo lagatzea, jaiotzen direnetik gutxienez 2 hilabete igaro baino lehen.
19. Konpainiako animaliak dohaintzan ematea, publizitate, sari, truke, zozketa edo konpentsazio gisa, konpainiako animalien kostu bidezko transakzioaz bestelako eskuraketengatik.
20. Etxeko animaliei beste etxeko animalia batzuei edo araututako jardueren eremutik kanpoko pertsonen eraso diezaieten bultzatzea.
21. Etxeko animaliak bizirik bidaltzea postaz, mezularitzaz edo antzekoez, etxeko animalien garraio profesionalen diharduten erakundeek egindako garraioa izan ezik, joan-etorrian animalia horiek zainduko dituztela bermatzeko.

**6. artikulua.- Etxeko animaliak ibilgailu partikularretan garraiatzea.**

Etxeko animaliak ibilgailu partikularretan garraiatzeko, arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzeari kalterik egin gabe, honako baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

1. Ibilgailuaren atzealdean joan behar dute, eta bide-segurtasunari buruzko araudian ezartzen diren lotzeko edota segurtasuneko bitartekoak erabili behar dituzte. Horrela, ez da gidari-lana eragotziko, ez da trafikoaren segurtasuna arriskuan jarriko edo, etologiaren edo fisiologiaren ikuspegitik, etxeko animalientzat baldintza desagokiak ekarri.
2. Espeziearen berezitasunen arabera, etxeko animalia lesio edo kalte-arriskurik gabe altxatu eta etzan ahal izateko adina leku izatea, higiene, osasun eta mantenuko baldintza egokiekin.
3. Klimatizazio- eta aireztapen-sistema bat izatea, etxeko animaliak beren erosotasun-mailaren barruan mantentzeko.
4. Aire zabalean eta eguraldi txarretik babestuta egotea.

**II. KAPITULUA. PERTSONEN ETA ETXEKO ANIMALIEN ARTEKO BIZIKIDETZA ARDURATSUA**

**7. artikulua.- Etxeko animaliak bide eta espazio publikoetan sartzea, gidatzea eta egotea.**

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)





**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

1. Oro har, etxeko animaliak espazio publikoetan edo gune naturaletan sartu eta bertan egon ahal izango dira, esanbidezko debekurik ezean, eta erantzuleek uhala edo lotzeko beste sistema batzuk izango dituzte gidatzeko, betiere oinezkoentzat edo etxeko beste animalia batzuentzat arriskutsuak ez badira. Txakurrekin batera doazen txakurren uhalak gehienez bi metroko luzera izango du.

Etxeko animalia gidatzen duenak behar adinako gaitasuna izan beharko du etxeko animalia kontrola une oro mantentzeko, pertsoneri eta etxeko beste animalia batzuei kalterik eta eragozpenik eragin gabe.

Horretarako betebeharra duten etxeko animaliek muturrekoa eraman behar dute, edo arriskutsua izan daitekeen animalia izan behar dute, edo edukitzeko baldintza bereziak bete behar dituzte. Txakurren muturrekoek beren tamaina eta arrazarako egokiak izan behar dute, hozkadak eragozteko eta gorputzaren hozte naturalerako arnasestuka ondo egoteko.

2. Honako hauek guztiz debekatuta daude:

- a) Haur-jolasguneetarako, parke bio-osasungarrietarako eta kirol anitzeko pistetarako bide eta espazio publikoetan etxeko animaliekin sartzea eta egotea.
- b) Etxeko animaliek bide publikoan dauden edateko uraren iturrietako hodiedatik zuzenean edatea, etxeko animalientzat berariaz erabiltzen diren iturrietatik edo parke publikoetan edo eremu egokietan erabilera mistoa dutenetatik izan ezik.
- c) Etxeko animaliak bide publikoan dauden iturri apaingarrietan, urmaeletan eta antzekoetan bainatzea, baimenduta eta seinaleztatuta dagoenean izan ezik.
- d) Etxeko animaliak hondartzetara edota alboko eremuetara sartzea, udal agintaritza eskudunak baimentzen duenean izan ezik.

1. Gomendagarria da etxeko animaliek modu iraunkorrean eramatea bide eta espazio publikoetan identifikazio-plaka bat edo lepokoari egokitutako beste edozein bitarteko, animalia izena eta jabearen edo edukitzailearen harremanetarako telefonoa jasotzen dituen.

**8. artikulua.- Txakurren aisialdirako gune espezifikoak espazio publikoetan.**

1. Udalak zehaztu eta seinaleztatu ahal izango ditu udalerriko eremuak, espazioak, lorategiak, parke publikoak, eta, hala badagokio, hondartzak eta horiei erantsitako eremuak, non txakurrak aske egon daitezkeen; baita ordutegiak ere, halakorik balego. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak ezin izango dira inola ere aske eta muturrekorik gabe egon.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

2. Txakurren aisialdirako guneak espazio publiko egokiak dira, eta txakurrak aske egon daitezke, osasun fisiko eta psikologiko ona izateko behar den ariketa fisikoa egin ahal izan dezaten.
3. Txakurren titularrek edo arduradunek uneoro kontrolatu beharko dituzte txakurrak, eragozpenak edo kalteak saihesteko, bai pertsoneri, bai etxeko animaliei, bai ondasun edo instalazio publikoei.

**9. artikulua.- Gorozkiak eta mikzioak bide eta espazio publikoetan.**

1. Etxeko animalia bat bide publikotik gidatzen duen arduradunak beharrezko neurriak hartu beharko ditu etxeko animalia gerozkiek eta pixek bide publikoa zikindu ez dezaten.
2. Etxeko animalia gerozkien kasuan, etxeko animalien gidariek berehala jaso behar dituzte animaliek espaloietan, pasealekuetan, hondartzetan, lorategietan eta, oro har, erabilera publikoko bide eta espazio publiko eta pribatuetan uzten dituzten gorozkiak. Gainera, poltsa iragazgaitz eta itxien barruan, udal zerbitzuek adierazitako paperontzietan edo euste-elementuetan utzi beharko dituzte. Beharrezkoa izanez gero, berehala garbitu beharko dute urez edota produktu biodegradagarriez eragindako bide publikoaren zatia.
3. Pixen kasuan, etxeko animalien gidariek ura edota produktu biodegradagarriak erabili beharko dituzte fatxadetan, zolatutako azaleretan eta hiri-altzarrietan berehala desagerrarazteko.

**10. artikulua.- Establezimendu eta lokal publikoetara eta garraio publikoetara sartzea.**

1. Oro har, etxeko animaliak establezimenduetara sartu ahal izango dira, lotuta eta kontrolatuta, hotelak ostalaritza zerbitzuak, garraio publikoak eta igogailu publikoak barne, araudi espezifikoan xedatutako ari kalterik egin gabe.  
Esparru edo establezimendu batean etxeko animaliak sartzea onartzen ez bada, debeku hori berariaz adierazi beharko da lokalaren kanpoaldetik ikusteko moduko bereizgarri baten bidez.
2. Nolanahi ere, berariaz debekatuta daude, oro har, honako jokabide hauek:
  - a) Etxeko animaliak elikagaiak prestatzen, manipulatu edo biltegitzen diren txikizkako saltokietako eremuetara sartzea.
  - b) Etxeko animaliak elikagaiak prestatu, manipulatu, biltegitatu edo garraiatzen diren ibilgailuetara sartzea.
  - c) Etxeko animaliak elikagaiak saltzen diren lekuetara sartzea, hala nola supermerkatuetara, merkatuetara, elikagai-saltokietara, etab.
  - d) Etxeko animaliak ikuskizun publikoak egiten diren lokaletan sartzea eta egotea.
  - e) Etxeko animaliak igerileku publikoetan sartzea eta egotea.
  - f) Etxeko animaliak osasun-lokaletan sartzea eta egotea.
  - g) Eta antzeko beste batzuk, baldin eta sektoreko araudiak debekatzen badu.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daithekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

1. Udaleko eraikinetan eta bulegoetan etxeko animaliak sartzeko araubidea udal organo eskudunak zehaztuko du.
2. Etxeko animaliek, garraio eta establezimendu publikoetan sartzen direnean, higiene- eta osasun-baldintza egokiak bete beharko dituzte, eta establezimenduak berak edo garraio-bideak zehaztutako segurtasun-neurriak bete beharko dituzte, baita sektoreko legeria espezifiko ere.
3. Igoailu publikoetan etxeko animaliak igotzea edo jaistea baimenduta dagoenean, horiek erabiltzeko lehentasuna izango dute etxeko animaliekin ez doazen pertsonen.
4. Artikulu honetan xedatutakoak ez du eragotziko Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legean edo horiek ordeztzen dituen arauan aurreikusitakoa. Etxeko animaliek bide, garraio eta establezimendu publikoetan zirkulatzeko eta sartzeko mugak, ordenantza honetan jasotakoak, ez zaizkie aplikatuko desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-txakurrei, horri buruzko araudiaren arabera izaera hori aitortuta badute. Era berean, muga horiek ez zaizkie aplikatuko genero-indarkeriako kasuetan lagundutako terapia gisa erabiltzen diren txakurrei.
5. Pertsonen eta etxeko animalien segurtasun-arrazoiengatik, behar bezala justifikatuta, udal organo eskudunak mugatu ahal izango du horiek masa-ikuskizun, azoka eta lehiaketa publikoetara sartzea, edo jende asko joatea, aire zabalean egiten diren kirol ekitaldiak barne.

**11. artikulua.- Pertsonen eta etxeko animalien arteko bizikidetzaren arduratsua espazio pribatuetan.**

Pertsonen eta etxeko animalien arteko bizikidetzaren espazio pribatuetan, hala nola auzo-komunitateetan, txokoetan, etab., beren estatutuetan ezarritakoaren arabera arautuko da, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauen arabera.

**III. TITULUA**

**ETXEKO ANIMALIAK IDENTIFIKATZEA, AIEORI JAKINARAZTEA ETA OSASUN KONTROLA EGITEA**

**I. KAPITULUA. IDENTIFIKAZIOA**

**12. artikulua.- Identifikazioa eta erregistroa.**

1.- Banakako identifikazioa nahitaezkoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Etxeko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) erregistratuko dira etxeko eremuko txakurrak, hudoak, katuak eta araudi bidez eskatzen diren beste espezie guztiak, haien trazabilitatea bermatzeko.

Etxeko animaliak babesteko 9/2022 Legea onartzean jaiotako hudoen eta katuen kasuan, identifikazioa araudi bidez ezarritako epean egin beharko da.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

- 2.- Etxeko animalia horien titularrek, titulua edozein izanda ere, behar bezala identifikatuta eta erregistratuta eduki beharko dituzte, jaiotzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean, eta, betiere, jaioterra utzi aurretik eta titulartasuna eskualdatu aurretik.
- 3.- Etxeko animalia albaitari ofizial edo gaitu batek identifikatu eta erregistratuko du.
- 4.- Etxeko animalia identifikatu eta erregistratzeko unean, titularrak agiri bidez egiaztatu beharko du bere nortasuna eta etxeko animalia horren jabetza gaitutako albaitaritzaz-zerbitzu ofizialaren edo pribatuaren aurrean, eta horrek identifikazio-agiri ofiziala emango du, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala eguneratua.
- 5.- Etxeko animalia identifikatzeko metodoa haren espezieari dagokion araudi sektorialaren bidez arautuko da. Txakurren kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo da.
- 6.- Etxeko eremuko hudoak eta katuak identifikatzeko eta erregistratzeko metodoa arautzen ez den bitartean, txakurrak identifikatzeko eta erregistratzeko arauak aplikatu ahal izango zaizkie.
- 7.- Euskal Autonomia Erkidegoan modu iraunkorrean edo hiru hilabetetik gorako aldianduz dauden etxeko animaliak, betiere titulartasuna eskualdatu aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean erregistratu beharko dira.
- 8.- Etxeko animalien trazabilitatea errazteko, animalia horiek babestearren, eta dagokion erregistroan inskribatu beharra alde batera utzi gabe, beste autonomia-erkidego batzuetatik, Europar Batasuneko (EB) estatu kideetatik edo Euskal Autonomia Erkidegoan biziko diren beste herrialde batzuetatik datozen etxeko animaliek jatorrizko identifikazio-agiri ofiziala mantenduko dute.
- 10.- Etxeko animalia laguntzaileak AIEOn bertan inskribatuko dira, konpainiako gainerako animaliekin batera bereizitako atal batean, aldeztu aurretik zein jardueratarako bideratuko diren egiaztatuta.

**13. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Etxeko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) egindako datu-aldaketan jakinarazpena albaitari ofizial edo elkargokide baten bidez.**

Banakako identifikazioa behar duen etxeko animalien jabeak AIEOri jakinarazi beharko dio, albaitaritzaz-zerbitzu ofizialaren edo gaituen bidez, erregistro horretan jasotako datuen edozein aldaketa. Zehazki, honako hauek jakinarazi beharko ditu:

- a) Titularraren edo etxeko animalien datuak aldatzea, batez ere, telefono-zenbakia eta titularraren helbidea. Datuak aldatzen direnetik gehienez ere 10 egun naturaleko epean jakinarazi beharko dira.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

- b) Titulartasun-aldaketak. Jabe berriak aldaketa horien berri eman beharko du, erosi eta gehienez 10 egun naturaleko epean.
- c) Etxeko animalia baxa, heriotzagatik. Jakinarazpena heriotza gertatu eta gehienez 10 egun balioduneko epean egin beharko da.

Etxeko animalia baxen titularrak heriotzaren arrazoia adieraziko du erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, salbu eta heriotza indarreko araudian jasotako albaitaritzako esku-hartze baten ondorioz gertatu bada; kasu horretan, albaitariaren dagokion txostena erantsiko da. Halaber, gorpuren kudeaketaren ziurtagiria erantsiko da.

- d) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora badoa, behin betiko lekualdatzeagatik baxa egin behar da, gehienez ere 10 egun naturaleko epean jakinarazi beharko dena, lekualdaketa egiten denetik zenbatzen hasita.
- e) Galtzearen ondoriozko desagertzea. Jakinarazpena gehienez ere 72 orduko epean egin beharko da, galtzen denetik zenbatzen hasita.
- f) Lapurreta edo lapurretaren ondoriozko desagertzea. Salaketa jarri eta gehienez ere 5 egun naturaleko epean egin beharko da jakinarazpena, eta salaketaren kopia bat aurkeztu beharko da.

## II. KAPITULUA. ETXEKO ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

### **14. artikulua.- Amorreriaren aurkako txertaketa.**

1. Udalerrian bizi diren txakur guztiek amorruren aurkako txertoa jarri behar dute nahitaez, berariazko araudian ezartzen den bezala, 12 astetik aurrera eta 24 aste bete baino lehen. Ondoren, beharrezko maiztasunarekin birtxertaketak egingo dira, emandako azken dosiaren txertoaren zehaztapen teknikoetan agintzen denaren arabera.
2. Etxeko beste animalia-espezia batzuen txertaketa borondatezkoa izango da, EBko beste estatu kide batzuetara lekualdatuko diren katuen eta hudoen kasuan izan ezik.
3. Amorreriaren aurkako txertaketa egiaztatzeko, albaitaritzako profesionalen ziurtagiria aurkeztu beharko da etxeko animalientzako kartillan/pasaportean, bai eta AIEOn inskribatuta dagoela ere.

### **15. artikulua.- Txakur erasotzaileen kontrola.**

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

1. Txakur batek eragindako erasoak salatzen den edo horren berri ematen zaion udal zerbitzuak edozein datu eskatuko dio salatzailerari edo gertaeren berri ematen duenari, txakurraren arduraduna, txakurra bera eta erasoaren inguruabarrak identifikatzeko, eta berehala jakinaraziko dio txakurra erroldatuta dagoen udalari, edo, bestela, jabea bizi den udalari, eta dokumentazio guztia helaraziko dio.
2. Txakurra erroldatuta duen udalak, hala badagokio, animalia-aren fitxan erregistratuko du erasoak, AIEOn, etxeko animalia-aren datuen aldaketa gisa.
3. Txakurrak titular ezagunak ez badu, gertakariak izan diren udal-erriko udala arduratuko da txakurra biltzeaz eta behaketan jartzeaz.
4. Aurreko paragrafoetan araututakoa kontuan hartuta, Barrundiako Udalarik erasoak gertatu den inguruabarren arabera jardutea dagokionean, prozedura hauetako bati jarraituko zaio:
  - 4.1. Eraso pertsona bati egiten bazaio eta horzkada-lesioak eragiten baditu, honako betebeharrak izango ditu:
    - a) Txakurraren titularraren eta al baitari elkargokideen betebeharrak:
      - a.1) Lesioak eragin dituen txakurraren jabeak, horzkada egin eta 24 orduko epean, al baitari elkargokideek behatu beharko dute, 14 egun naturalez (edo beste denboraldi batez, une bakoitzeko inguruabar epizootiologikoen hala gomendatzen badute, eta txosten tekniko arrazoitua egin ondoren).
      - a.2) Gainera, gertakariak izan direnetik 72 orduko epean, agintari eskudunari jakinarazi beharko dio animalia erasotzailea behatzen ari dela.
      - a.3) Al baitari elkargokideek behaketa egin beharko dute zoonosi-arriskuak baztertzeko edo detektatzeko eta etxeko animalia-aren izaeraren balizko arriskua ebaluatzeko. Behaketa-aldia amaitzean, behaketaren emaitzaren ziurtagiria egin beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 0 eranskinaren arabera.
      - a.4) Behaketa-aldia amaitu ondoren, jabeak aurreko atalean aipatutako ziurtagiria bidali beharko dio animaliak kontrolatzeko udal zentroari, ziurtagiria eman eta gehienez ere 48 orduko epean.
    - b) Agintari eskudunen betebeharrak espedientea izapidetzean
      - b.1) Egitateak gertatu direnetik 72 ordu igaro badira, txakurraren titularrak ez badio agintari eskudunari jakinarazi animalia behatzen hasi dela, errekerimendua egingo zaio, errekerimendua jakinarazten zaionetik gehienez ere 48 orduko epean, berak aukeratutako al baitari elkargokideek behaketa egin diezaiotela. Al baitariaren txostena, behaketaren emaitzarekin, espedientea izapidetzen ari den agintaritzak eskudunari bidali beharko dio, gehienez ere 48 orduko epean,

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

behaketa egin zaionetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, txosten hori adierazitako epean bidali beharko du.

b.2) Eusko Jaurlaritzan osasun-arloko eskumena duen saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta foru-aldundietako Animalien Osasun Zerbitzuei jakinaraziko zaie hozkadari buruzko egitateak deskribatzen dituen txostena, eta, behaketa egin ondoren, behaketa egin duten albaitari elkargokideen ziurtagiriaren kopia bidaliko zaie aipatutako unitate eta zerbitzuei.

4.3 Erasoa pertsona bati egiten bazaio eta haginkadak eragindako lesiorik ez badakar, txakurraren jabeak txakurra behatu beharko du berak aukeratutako albaitari elkargokidearen aldetik, animalia izan dezakeen arriskua ebaluatzeko, hark beharrezkotzat jotzen duen denboran, eta dagokion ziurtagiria egingo dio agintari eskudunari.

4.4 Erasoa beste animalia batzuei egiten bazaie, agintaritzak espedientea izapidetzeko eskumena izango du, erasoaren inguruabarrak, eragindako kalteak, aurretik ere gertatu izana edo beste faktore batzuk kontuan hartuta, eta baloratuko du animalia erasotzaileari albaitari elkargokideek behatu behar dioten ala ez; kasu horretan, txakurraren titularrari jakinaraziko dio.

### **16. artikulua.- Txakurrak edukitzeko baldintza bereziak izatea.**

1. Txakur jakin baten zirkunstantzia etologikoen hala eskatzen dutenean, eta Barrundiako Udalak jarduteko eskumena duenean, txakurra Barrundian erroldatuta dagoelako edo jabea Barrundian bizi delako, udal organoak/udal zentroak/agintari eskudunak baldintza bereziak jarri ahal izango dizkio animalia bera edukitzeko. Ebazpena AIEOri jakinarazi beharko zaio, eta baldintza berezi hauek ezarriko ditu: muturrekoa erabiltzea, 2 metro baino gutxiagoko uhala, arnesak erabiltzeko debekua, ezaugarri jakin batzuk dituzten espazio pribatuetan mantentzea edo egoki irizitako beste edozein. Horiek txakurren pasaporte-kartilla ofizialean idatzi beharko dira.
2. Aipatutako baldintzak ezarri gero, txakurraren jabeak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du hirugarrenei eragindako kalteengatik, gutxienez 120.000 euroko estaldurarekin. Aseguratutako zenbateko horretan ez da inolako frankiziarik sartuko.
3. Baldintza bereziak bete behar dituen txakurraren titularrak ezarritako baldintza bereziak kentzeko eskatu ahal izango du, urtebeteko epean, lehenengo paragrafoan aipatutako ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Eskaerarekin batera, txakurren etologian aditua den trebatzaile baimendu baten ziurtagiria aurkeztu beharko da eta bertan adieraziko da animalia trebatze-zentro batera joan dela eraso eragin zuten portaera-arazoak konpontzera, eta bestetik albaitari elkargokideen txosten arrazoitu bat, animalia arriskugarritasuna baloratzen duena.
4. Baldintza bereziak bete behar dituen txakur baten titularrak baldintza horien berri eman behar dio titular berriari transferentzia egin aurretik.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

**17. artikulua.- Etxeko animalien esterilizazioa.**

1. Edozein titulu izanda ere lagatzen edo transmititzen diren txakurrak eta katuak beti esterilizatuko dira entregatu aurretik. Esterilizazioa ezin bada egin etxeko animalia adinagatik, egoera fisikoagatik edo osasun-egoeragatik, pertsona titular edo arduradun berriak konpromiso bat sinatu beharko du esterilizazioa egiteko sei hilabeteko epea igaro baino lehen, esterilizazioa egitea ezinezkoa dela justifikatzen duen albaitari kolegiatuaren txostena izan ezik.
2. Jabetza legatu edo herentziaren bidez eskuratzen denean, jaraunsleak edo legatu-hartzaileak esterilizatzeko betebeharra izango du, eskuratzeko datatik hilabeteko epean, salbu eta albaitari elkargokideak esterilizazioa ezinezkoa dela justifikatzen duen txostena egiten badu.
3. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak esterilizatu egin beharko dira hazkuntza-zentrotik irten aurretik, beste hazkuntza-zentro batera ez baldin badoa. Esterilizazioa ezin bada egin adinagatik edo animalia egoera fisiko edo sanitarioagatik, titular edo arduradun berriak konpromiso bat sinatu beharko du, ahalik eta lasterren egiteko. Esterilizazio hori, nolahi ere, 12 hilabete bete baino lehen egingo da.
4. Eskualdaketa egin aurretik, ez zaie nahitaez esterilizatu beharko desagertzeko arriskuan dauden etxeko animalien arraza autoktonoei, ez eta etxeko animalia laguntzaileei ere, haien ezaugarri genetikoak kontserbatu behar direnean.
5. Esterilizazioa albaitari elkargokideek bakarrik egingo dute, minik gabe eta anestesiatan.

III. KAPITULUA. OSASUN PUBLIKOA

**18. artikulua.- Etxeko animalien hilotzak jasotzea eta desagerraraztea.**

1. Etxeko animalien jabeak izango dira hilotzak kudeatzeaz arduratuko direnak. Kudeaketa hori giza kontsumorako ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuak suntsitu eta kontrolatzeari buruz indarrean dagoen araudiaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera egingo da.
2. Partikularrek ezin izango dute euren konturako gorpurik deuseztatu, eta inola ere ezin izango dituzte bide publikoan edo zaborrontzietan utzi. Animalien hilotzak desagerrarazten espezializatutako enpresa baten bidez desagerrarazi ahal izango dira, edo baimendutako maskotentzako hilerri batean lurperatu ahal izango dira.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelakeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	16/09/2024 13:06





**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

3. Barrundiako Udalari dagokio bide publikoan hildako animaliak kentzea. Etxeko animaliak badira eta animalia horiek nahitaez identifikatu behar badira, mikrotxipa irakurri eta animalia heriotzaren berri emango zaio jabeari, eta jabeak bere gain hartuko du hilotzaren kudeaketaren kostua. Banakako identifikazioa behar duen etxeko animaliak identifikaziorik ez badu, argazki bat egingo da identifikatzeko, eta datuak biltzen saiatuko da titularra aurkitzeko.

**19. artikulua.- Elikagaiak bidean uztea, animaliei jaten emateko.**

Osasungarritasun publikoa babesteko eta izurrien ugalketa saihesteko, debekatuta dago animaliei jaten emateko elikagaiak bide publikoan uztea, ordenantza honen Udalak aitortutako katu-kolonietako katuei izan ezik, 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**IV. TITULUA**

**ETXEKO ANIMALIAK BIDE PUBLIKOAN JASOTZEA, ATXIKITZEKO EPEAK ETA BERTAN BEHERA UTZI IZANAREN ADIERAZPENA**

**20. Artikulua.- Etxeko animaliak bide publikoan jasotzea.**

1. Barrundiako udalari dagokio galdutako edo abandonatutako etxeko animaliak bide publikotik jasotzea.
2. Bide publikoan galdutako edo abandonatutako etxeko animalia bat badago, agintari eskudunari jakinaraziko zaio, eta hark, arduraduna edo titularra inguruan ez dagoela egiaztatu ondoren, eta, nolahi ere, animalia identifikatu ondoren eta hura aurkitzeko saiakerak egin ondoren, bide publikotik jasotzeko dagokion abisua emango dio udal zerbitzuari edo horretarako kontratatutako enpresari.
3. Etxeko animaliak harrapatu eta garraiatuko dituzte etxeko animaliak kontrolatzeko eta maneiatzeko prestakuntza eta esperientzia duten langileek, eta alferrikako sufrimendurik, minik edo larritasunik eragiten ez duten metodoak erabiliko dira. Ibilgailuak leku nahikoa izango du eta higie- eta osasun-baldintza egokiak izango ditu.
4. Animalia edo pertsonen segurtasunak berak hala gomendatzen badu, harrapaketa-metodoak erabili ahal izango dira, konortea galduta eta urrutitik immobilizatuta, lasaigarriak eta anestesikoak dituzten jaurtigaien bidez edo sare, tranpa edo animalia bizirik eta ahalik eta minik txikienarekin harrapatzeko aukera ematen duen beste sistemaren batekin. Albaitariak gainbegiratuko du jarduera hori.

**21. Artikulua.- Bide publikotik jasotako etxeko animalien titularrak edota arduradunak aurkitzea, atxikitze-epeak eta abandonu-adierazpena.**

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA F0144708b02810060b807e80e8090c3bx

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	16/09/2024 13:06



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

1. Bide publikoan jasotako etxeko animaliak udal zerbitzuaren edo erakunde pribatuaren, animalien babes eta defentsarako elkartearen edo horretarako itundutako udal erakundearen instalazioetan egongo dira, eta titularra edota arduraduna aurkitzeari buruzko lanak egingo ditu, atxikitzeke legezko epeen arabera. Identifikatu gabeko etxeko animalien kasuan, espeziari dagokion identifikazio-bitartekoa ezarriko zaie, eta erregistro-liburuan inskribatuko da.
2. Identifikaziorik gabeko animalia bat atxikita egoteko epea 15 egun naturalekoa izango da, dagokion Erregistro Liburuan jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren animalia ez bada erreklamatzeko edo jasotzen, animalia abandonatutzat joko da, eta adoptatu ahal izango da; edo, bestela, Barrundiako Udalak adoptatu ahal izango du, eta hura izango da animaliaaren titularra. Epe horren barruan, pertsona batek animaliaaren titularra dela agiri bidez adierazten eta egiaztatzen badu, animalia identifikatu eta bere izenean erregistratu ondoren emango zaio.
3. Etxeko animalia identifikatua eta erregistratua bada, hura jaso eta hurrengo hiru egun baliodunetan, animalia jasotzeko betebeharraren jakinarazpen fede-emailea bidaliko zaio titular gisa agertzen den pertsonari, 7 egun naturaleko epean, jakinarazpenaren datatik zenbatzen hasita. Jakinarazpen hori aldi berean egingo da etxean eta BOEn. Epe horretan agertuz gero, animalia entregatu egingo zaio, bere nortasuna agiriaren bidez egiaztatu ondoren. Epe horretan titularrak berreskuratu ez badu, animalia abandonatutzat joko da eta aurreko atalean aurreikusitako prozesua jarraituko da.

**V. TITULUA**

**KATU KOLONIAK**

**22. artikulua.- Katu komunitarioen populazioa kontrolatzea.**

1. Barrundiako Udalak, animalien ongizatearen arloan legeriak ematen dizkion eginkizunak betez, udalerriko katu komunitarioen populazioa kontrolatzen du, animalien ongizate-baldintzak hobetzeko eta bizi diren espazioen osasungarritasun-baldintzak hobetzeko metodo eta eskuartzeen bidez populazioa kontrolatzeko asmoarekin.
2. Katu komunitarioen populazioaren kontrola, Harrapaketa, Esterilizazioa, Markaketa eta Itzulera metodoaren bidez egingo da (aurrerantzean, HEI). Metodo hori Barrundiako Udalak aitortutako katu komunitarioen koloniei aplikatuko zaie, baita katu komunitarioen beste talde batzuei ere, interes publikoko/osasuneko edo osasun publikoko arrazoiak direla-eta hala komeni denean.
3. Debeekatuta dago herritarrek bide publikoan dauden katu komunitarioak elikatzea, hurrengo artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelakeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	16/09/2024 13:06



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

**23.artikulua.- Udalak aitortutako katu-koloniak.**

1. Ordenantza honen ondorioetarako, Udalak aitortutako katu koloniatzat hartuko dira askatasun egoeran bizi diren eta udalerrian kokatuta dauden katu komunitarioen taldeak, betiere udalaren jabari publikoan kokatuta badaude. Ezin izango dira inola ere ikastetxe, ospitale eta beste kokapen batzuen inguruetan jarri, bateraezinak badira, animalien ongizateagatik, osasun publikoagatik, biodibertsitatearen kontserbaziorako arrisku larriagatik, herritarren segurtasunagatik edo auzokideak aurka daudelako.

Salbuespen gisa, lursail partikularrean edo beste administrazio publiko batzuen jabetzako lurretan daudenak onartuko dira, baldin eta jabetzak egiaztapen dokumentalaren bidezko baimena ematen badu, edo jabetza ezezaguna izanik ere, kolonia baketsua bada eta ez badu auzokideen arteko gatazkarik sortzen, eta, betiere, aurreko atalean deskribatutako kokapen-mugak kontuan hartuta.

2. Udalak aitortutako katu-koloniek soilik eduki ahal izango dituzte pertsona elikatzailerak. Pertsona horiek Udalaren protokoloak bete beharko dituzte, honako alderdi hauei dagokienez: janariaren ezaugarriak eta kantitatea, espazioaren osasungarritasun-baldintzak, koloniako kideen esterilizazioa, beste batzuen artean. Protokolo horiek betetzen badira, dagokion koloniarri lotutako elikatzailerak(k) egiaztatze agiria emango d(ir)a.

Elikatzailerak egiaztatzen duen dokumentua urte naturalarekin batera berrikusiko da, baina automatikoki baliogabetu ahal izango da hura emateko arrazoi izan ziren protokoloak/jarraibideak betetzen ez direla egiaztatzen denean.

Egiaztagiria ez berritzeak edo automatikoki baliogabetzeak elikatzailerak izaera galtzea dakar, eta Udalarri ahalmena ematen dio behar den guztietan jarduteko, jabari publikoan inbaditzen duten elementu osagarriak kentzea barne.

1. **artikulua.- Katu komunitarioen errolda.**

Katu komunitarioen populazioa kontrolatzeko, Katu Komunitarioen Udal Errolda sortzen da. Bertan Barrundiako Udalak aitortutako katu-koloniak inskribatuko dira, ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzeagatik, baita udalerriko gainerako katu-taldeak ere, horien berri izanez gero.

Katu komunitarioen Udal Errolda Barrundiako Udalak aitortutako katu komunitarioen koloniei buruzko datuak eta informazioa biltzeko tresna bat da, baita beste katu talde batzuei buruzkoa ere, eta datu hauek jasoko ditu: kokalekuak, kolonia edo taldearen arduradun(ar)en identifikazioa, laguntzaileak eta elikatzailerak, koloniako edo taldeko kide kopurua eta kide esterilizatuaren kopurua, baita kudeaketarako egokitzat jotzen den gainerako informazioa ere.

Barrundiako Udaleko Katu Komunitarioen Udal Errolda eguneratuta egon beharko da, informazio-tresna bat delako, eta dagozkion aldaketak egin beharko dira, bai koloniarren arduradunak jakinarazita, bai udalak egiaztatuta.

**25. artikulua.- Animaliak Babesten dituzten Elkartekiko lankidetzaren sustatzea.**

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalarenegitza-araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	16/09/2024 13:06



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

Barrundiako Udalak lankidetza sustatu ahal izango du Animaliak Babesteko Elkarrekin, udalaren interesari laguntzeko katu komunitarioen populazioa kontrolatzen, EHZ metodoaren bidez, bai eta katu komunitario soziagarrien edo sozializazio-fasean dauden adopzioa edo harrera sustatzeko ere.

**VI. TITULUA**

**ETXEKO ANIMALIEN BABES ETA DEFENTSARAKO ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK**

**26. artikulua.- Elkarreak.**

1. Animaliak babesteko eta defendatzeko elkarte edo erakundetzat hartuko dira, irabazi asmorik gabe, legez eratuta daudenak eta Barrundiako udal-erregistroan eta gai jakin bati lotutako legez ezarritako erregistroetan inskribatuta daudenak, betiere helburu nagusia animaliak defendatzea eta babestea bada.
2. Barrundiako udalak animaliak babesteko eta defendatzeko elkarte edo erakundeekin hitzartu ahal izango du animaliak babesteko eta defendatzeko jarduerak egitea edo arduraz edukitzeaz kontzientziatzea.

**VII. TITULUA**

**ZAINZA ETA IKUSKARITZA EGINKIZUNAK**

**27. artikulua.- Ikuskaritza-jarduera.**

1. Ordenantza hau ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak betetzen dituzten langileak, eginkizun horiek betetzen dituztenean eta beren nortasuna egiaztatzen dutenean, agintaritzaren agente izango dira, legeria orokorrean eta administrazio-prozeduran aurreikusitako moduan eta ondorioekin.
2. Langile horiek behar adina kontrol eta jarduera egin ahal izango dituzte ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian eskatzen diren baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.
3. Ikuskatzaileek probak egin ahal izango dituzte, baita beren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren jarduketa eta errekerimendu guztiak egin ere. Pertsona fisiko bat etxean sartu behar bada, haren berariazko baimena edo baimen judiziala izan beharko du.
4. Ikuskaritzaren arduradunak, luzatu ezin den larrialdi-kasuetan eta modu arrazoitu eta proportzionalean, beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurri guztiak hartu ahal izango ditu, interesdunei entzun gabe, animalia biziaren bizitzarako edota pertsonen

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotioa.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

segurtasunerako berehalako arrisku larria dagoenean. Horretarako, dagokion ikuskaritza-akta egingo da, eta, bertan, arrazoa, helburua eta hartutako behin-behineko neurria justifikatuko dira, baita jarduketaren larrialdi luzaezina ere.

**VIII. TITULUA**

**ZEHAPEN ARAUBIDEA**

**I. KAPITULUA**

**PRINTZIPIO OROKORRAK, PROZEDURA ETA ESKUMENA**

**28. artikulua.- Arduradunak.**

- 1.- Ordenantza honetan arau-hauste gisa tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira erantzuleak, arlo zibilean edo penalean legokiokeen erantzukizunari alde batera utzi gabe.
- 2.- Ordenantza honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea pertsona bati baino gehiagori batera badagokie, edo arau-haustea pertsona bati baino gehiagori egotzi ahal bazaie eta horietako bakoitzaren parte-hartze maila zehaztu ezin bada, egiten diren arau-hausteen eta, hala badagokio, ezartzen diren zehapenen erantzule solidarioak izango dira. Era berean, jarduera utzi duten pertsona juridikoei ezarritako zehapenen erantzule subsidiarioak izango dira arau-haustea egiten den unean erakundeko administratzaile edo ahaldun nagusi kargua beteko dutenak.

**29. artikulua.- Zehapen-prozedura.**

1. Barrundiako Udalak Euskal Administrazio Publikoen zehapen ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen, hura ordeztzen duen Legearen eta hura garatzen duten gainerako xedapen juridikoen arabera erabiltzen du zehatzeko ahalmena.
2. Arau-haustek delitu izan daitezkeen kasuetan, zehapena ezartzeko eskumena duen udal organoak, prozedura hasteko erabakian, egitateak zehapen-arloko jurisdikzio-organo eskudunari jartzea xedatuko du, eta ez du zehapen-prozedurarekin jarraituko harik eta agintaritza judizialak prozedura amaitzen duen epai irmoa edo ebazpena eman arte, eta arau-haustearen preskripzio-epea etenda geratuko da.
3. Zehapen-prozedura hasteko erabakian besteak beste, udal organo eskudunak kautela-neurri hauek hartu ahal izango ditu:
  - a) Hartutako behin-behineko neurriak mantentzea edo aldatzea. Neurri horiek kautela neurriak izango dira.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacion/Doc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

- b) Etxeko animaliak prebentzioz konfiskatzea eta zaintzea, zehapen-prozedura ebatzi arte non egongo den zehaztuz.
  - c) Agintari eskudunak etxeko animaliak lekualdatzeko legez eskatzen diren agiriak ibilgetzea edo ez bidaltzea.
1. Kautela neurriek iraun egingo dute neurri horiek hartzea eragin zuten arrazoiek dirauten bitartean. Nolanahi ere, etxeko animaliak ezin izango dira kendu espedientearen ebazpen irmoa eta gero.

**30. artikulua.- Prozeduran interesa duten aldeak.**

Izapidetzen diren zehapen-prozeduretan, alderdi interesdun izango dira zehapen-prozeduraren jatorri den salaketa jarri duten elkarteak eta erakundeak, edo animalien babesa estatutuetan jasotzen duten eta prozeduran pertsonatu diren elkarteak eta erakundeak.

**31. artikulua.- Udal organo eskudunak.**

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek egiteagatik zehapenak ezartzea honako hauei dagokie:

- a) Alkatzari, arau-hauste arinen kasuan.
- b) Osoko Bilkurari, arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan.

**32. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.**

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek honela preskribatuko dira:
  - a) Arina: urtebetera.
  - b) Larria: bi urtera.
  - c) Oso larria: hiru urtera.
1. Arau-haustek preskribatzeko epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontaktzen. Modu jarraituan egindako arau-hausteen kasuan, epe hori arau-haustea eragin duen azken gertaera egin zen egunetik edo legez kontrako egoera ezabatu zenetik hasiko da zenbatzen.
2. Ezarritako zehapenak honela preskribatuko dira:
  - a) Arau-hauste arinagatik: urtebetera.
  - b) Arau-hauste larriagatik: bi urtera.
  - c) Arau-hauste oso larriagatik: hiru urtera.
1. Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzen duen ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontaktzen.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitzeko helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

**33. artikulua.- AIEOri egindako komunikazioak.**

Zehapen-organo eskudunek AIEOri jakinaraziko diote arau-hauste larriak eta oso larriak egiteagatik ezarritako zehapen-prozedura amaitzen duen ebazpena.

II. KAPITULUA

ARAU HAUSTEAK

**34. artikulua.- Arau-hausteak.**

Etxeko animalien babesaren eta eskubideen arloko arau-hauste administratiboak izango dira Ordenantza honetan halakotzat tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak, hurrengo artikuluetan deskribatutako sailkapenaren arabera.

I.- Arau-hauste arinak: arau-hauste arintzat hartuko dira, bai etxeko animaliarri kalte fisikorik edo portaeran aldaketarik eragin gabe, egitez edo ez-egitez, legez ezarritako debekuak, zaintzak edo betebeharrak ez betetzea dakarten jokabideak, bai eta etxeko animaliarren titularrek edo arduradunek administrazio-erantzukizunak ez betetzearen ondoriozkoak ere.

Zehazki, honako arau-hauste hauek arintzat hartuko dira:

1. Etxeko animaliak kontrolik gabe ugaltzea saihesteko beharrezko neurriak ez hartzea.
2. Txakurrak eta katuak besterenganatu aurretik, horien titularrek edo arduradunek ez esterilizatzea.
3. Etxeko animaliak behar bezalako baldintzetan ez garraiatzea edo ordenantza honen 6. artikuluan adierazitakoaren arabera ez garraiatzea.
4. Albaitaritza-tratamendu prebentiboak, aringarriak edo sendagarriak ez ematea, bai nahitaezkoak direnak, bai etxeko animalien osasun-egoera onari eusteko beharrezkoak direnak.
5. Ankerkeria, tratu txarrak edo sufrimendu simulatuak dakartzaten eszenak filmatzea, argazkiak ateratzea edo grabatzea edozein komunikazio-euskarritan, aldeztu aurretik agintaritzari jakinarazi gabe.
6. Etxeko animaliek espaloietan, pasealekuetan, lorategietan eta hondartzetan, oro har, bide eta espazio publiko eta pribatuetan uzten dituzten gorozkiak berehala ez jasotzea.
7. Animalien pixak fatxadetan, zolatutako azaleretan eta hiri-altzarietan berehala ez garbitzea urez edota produktu biodegradagarriez.
8. Etxeko animaliarri arrisku-egoerak edo mina, beldurra edo estresa eragin diezaieketen egoerak eragitea, salbu eta etxeko animalia laguntzaileak badira beren jardura zehatzean.
9. Edateko ur eta elikadura egokirik ez ematea.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daithekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalategitza-araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

10. Etxeko animaliei egonaldi eta bizitokirako espaziorik ez ematea, azalera, aireztapena, hezetasuna, tenperatura, argia eta aterpea dituen, eta espeziearen, tamainaren eta pisuaren arabera egokiak eta beharrezkoak direnak.
11. Ostatzeko lekua osasungarritasun-baldintza egokietan ez mantentzea. Era berean, animaliak dauden lekuetatik gorotzak eta pixa ez kentzea.
12. Etxeko animaliak identifikatzeari eta erregistratzeari buruzko betebeharrak ez betetzea.
13. Ordenantza honetako 13. artikuluan aurreikusitako epeetan AIEOn nahitaz aitortu beharreko datuen aldaketak jakinarazteko betebeharra ez betetzea.
14. Txakurrak, katuak eta hudoak ematea edo lagatzea, jaiotzen direnetik gutxienez 2 hilabete igaro baino lehen.
15. Etxeko animalien gorpuk jasotzea, identifikazioa nahitaezkoa denean egiaztatu gabe, eta administrazio eskudunari ez jakinaraztea identifikatutako etxeko animalia baten gorpua erretiratu dela.
16. Txakurren, katuen eta hudoen gorpuk edozein bide publikotan edo zaborra biltzeko edukiontzietan uztea.
17. Kalteak eragin ditzaketen etxeko animaliak zaintzeko ardura ez izatea.
18. Espazio publikoetan, txakurrak haien ezaugarrietarako egokia den eta gehienez bi metroko luzera duen uhal batez lotuta ez eramatea.
19. Espazio publikoetan, etxeko animaliak beti kontrolatuta eta lotuta ez edukitzea, animalia horien espeziari, arrazari, tamainari eta beste ezaugarri batzuei egokitutako euste-elementuen bidez.
20. Aire zabaleko bide eta espazio publikoetan sartzeko eta bertan egotea, ume- jolasguneetan, parke bio-osasungarrietan eta kirol anitzeko pistetan, baita 7.2.artikuluan jasotako debekuak ez betetzea ere.
21. Agintari eskudunak etxeko animalien ongizatea, osasun publikoa eta segurtasuna bermatzeko ematen dituen errekerimendu eta ebazpen administratiboak ez betetzea. Halaber, txakurrek etxeko beste animalia batzuei edo pertsoneri erasozeren, agintariak emandako jarraibideei jaramonik ez egitea.
22. Administrazioari kontrol-eginkizunak betetzeko beharrezko informazioa eta dokumentuak ez ematea edo okerreko dokumentazioa ematea.
23. Udalak horretarako baimendu ez dituen pertsonen etxeko animalientzako elikagaiak bide publikoan eta espazio publikoetan, orubetan eta antzekoetan uztea.

II.- Arau-hauste larritzat joko da egintzaren edo ez-egitearen ondorioz edo debekatutako betebeharrak ez betetzeagatik edo debekatutako jokabideak egiteagatik etxeko animaliarik kaltea edo sufrimendua eragiten dion jokabide oro, betiere heriotza edo ondorio larrikeria eragiten ez badiote:

Bereziki, arau-hauste hauek larritzat jotzen dira:

1. Etxeko animaliei nahita lesio fisikoak eragitea.
2. Etxeko animaliei beharrezkoak ez diren sufrimenduak edo kalteak eragin diezazkieketen substantziak ematea.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)





**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

3. Etxeko animaliei tratu laidogarria ematea edo beren izaerari ez dagozkion jokabideak edo jarrerak gauzatzeari, salbu eta etxeko animalia laguntzaileak badira, beren jarduera zehatzean.
4. Etxeko animaliak beren gaitasuna gaintitzen duen edozein jardueratan parte hartzera behartzea, batez ere, gaixo dauden, nekatuta dauden, umedun dauden edo sei hilabete baino gutxiago dituzten etxeko animaliak direnean.
5. Etxeko animaliak dohaintzan ematea, publizitate, sari, truke, zozketa edo konpentsazio gisa, edo etxeko animalien kostu bidezko transakzioaz bestelako eskuraketengatik.
  6. Etxeko animaliei albaitaritza-laguntza egokirik ez ematea gaitz edo sufrimendu larri eta nabarmenen aurrean.
  7. Katu edo hudoa 24 orduz jarraian eta txakurra 12 orduz jarraian bakarrik uztea.
  8. Etxeko animaliak etengabe lotuta edo ibilgetuta edukitzea. Era berean, etxeko animaliak lotuta eduki kalteak edo sufrimendua eragiteko moduan.
  9. Etxeko animaliak aireztapen eta tenperatura egokirik gabe aparkatuta dauden ibilgailuetan aldi baterako mantentzea, etxeko animaliarik kalteak edo sufrimendua eragiten badizkio.
  10. Legeak debekatzen dituen ikuskizunetan ikusle gisa parte hartzea.
  11. Agintaritzak etxeko animalia arrisku-egoera amaitzeko hartutako behin-behineko neurriak, kautelazkoak edo irmoak, urratzea, baita zehapen osagarriak ere.
  12. Etxeko animalia bat ibilgailuz harrapatuz gero, laguntza ez ematea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
  13. Pertsonak erasotzen badituzte, albaitari elkargokideek animalia horren titulartasuna edo erantzukizuna betetzeko betebeharra ez betetzea, ordenantza honen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.
  14. Zigor-lepokoak erabiltzea, hala nola pintxo-lepokoak, itotze-lepokoak, deskarga elektrikoaren lepokoak eta horiek erabiltzeak mina, ondoez fisikoa edota psikologikoa eragiten duen beste edozein lepoko.
  15. Etxeko animaliei, elikagairik eta edaririk ez ematea kalterik edo sufrimendurik eragiten badie.
  16. Ordenantza honen ondorioetarako, 3 arau-hauste arin edo gehiago bi urteko epean.

III.- Arau-hauste oso larritzat hartuko da, oro har eta jarraian tipifikatutako beste jokabide batzuk alde batera utzita, betebeharrak ez betetzeagatik edo debekatutako jokabideak ez betetzeagatik, etxeko animalia hiltzea edo ondorio larri iraunkorrak eragitea.

Zehazki, arau-hauste oso larritzat honako hauek hartzen dira:

1. Etxeko animaliak esterilizatzea, hiltzea, baita lege ezarritako baldintzen eta betekizunen aurkako antzeko beste edozein eskuartze ere, albaitariaren kontrolik gabe.
2. Etxeko animaliei tratu txarrak ematea, ebakuntza kirurgikoak eta mutilazioak eginez, baldin eta horien helburua bada animalia itxura aldatzea edo albaitaritza-medikuntzari

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

dagokionez sendagarriak ez diren helburuak lortzea, eta, ondorioz, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragitea.

3. Etxeko animaliei tratu txarrak ematea eraso baten bidez, eta, ondorioz, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragitea.
4. Etxeko animaliei tratu txarrak ematea, alkohola, drogak edo botikak emanaz heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eraginez, justifikazio terapeutikorik eta albaitaritzza-preskripziorik gabe, nahitaezkoa denean.
5. Etxeko animaliei tratu txarrak ematea, eta elikagairik eta edaririk ez ematea, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragiten badizkie.
6. Etxeko animaliei tratu txarrak ematea, tratu laidogarriaren mende jarriz edo beren izaerari ez dagozkion portaerak edo jarrerak eginez, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragiten dizkietenean.
7. Etxeko animaliei tratu txarrak ematea, eta haien gaitasuna gainditzen duen edozein jardueratan parte hartzea behartzea, batez ere animalia gaixoak, nekatuak, umedunak edo sei hilabetetik beherakoak direnean, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragiten dizkietenean.
8. Elikagai pozoitsuak edo elementu zorrotzak dituztenak edonon uztea eta bide eta espazio publiko edo pribatuetan etxeko animalientzat pozoia barreiatzea.
9. Edozein komunikazio-euskarritan, ankerkeria edo sufrimendu simulatu gabea dakarten eszenak etxeko animaliekin filmatzea, argazkiak ateratzea edo grabatzea.
10. Etxeko animaliak modu oldarkorrean edo bortitzean heztea edo borroketan parte hartzeko prestatzea.
11. Etxeko animaliekin edo haien artean borrokak bultzatzea, sustatzea edo antolatzea.
12. Etxeko animaliak borroketan edo erasoetan parte hartzeko erabiltzea.
13. Etxeko animaliak abandonatzea.
14. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak 12 hilabete bete baino lehen ez esterilizatzea.
15. Ordenantza honen ondorioetarako, 2 arau-hauste larri bi urteko epean.

### III. KAPITULUA

#### ZEHAPENAK

#### **35. artikulua.- Zehapen nagusiak.**

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek honela zehatuko dira:

- a) Arau-hauste arinak: ohartarazpena edo 100 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.
- b) Arau-hauste larriak: 3.001 eurotik 10.000 eurora bitarteko isuna.
- c) Arau-hauste oso larriak: 10.001 eurotik 100.000 eurora bitarteko isuna.

#### **36. artikulua.- Zehapen osagarriak.**

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)



## Barrundiako Udala Ayuntamiento de Barrundia

1. Zehapen-ebazpenak arau-haustearen xede diren etxeko animaliak konfiskatzea aginduko du, eta, hala badagokio, animalia horiek biltzeko zentro batera eramatea, etxeko animalia osotasun fisikoa edota herritarren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa denean.
2. Arau-hauste larriak egiteagatik ezarritako zehapenek berekin ekar dezakete, dagokion isunaren zehapen osagarri gisa, etxeko animaliak edukitzeko gaitasungabetzearen zehapen osagarria, hiru hilabetetik zortzi urte artekoa gehienez.
3. Arau-hauste oso larriekin batera, zehapen osagarri bat jarriko da: hamar urtera arteko etxeko animaliak edukitzeko gaitasungabetzea.

### **37. artikulua.- Zehapenen mailaketa.**

1. Zehapenak mailakatzeko, honako inguruabar hauek hartuko dira kontuan:
  - a) Etxeko animalia iragindako kaltea.
  - b) Etxeko animalien osasunean, segurtasun publikoan edo ingurumenean izan duen eragina.
  - c) Iragindako etxeko animalien kopurua.
  - d) Jokabide arau-hausleak jarraitzea edo irautea.
  - e) Jokabide arau-hauslea ankerkeriaz edota baskaeriaz jokatzeko.
  - f) Legez kontrako irabazi-asmoa eta arau-haustearekin lortutako edo aurreikusitako onuraren zenbatekoa.
  - g) Erruduntasun-maila edo intentzionalitatea, zuhurtziagabekeria edo zabarkeria egotea.
  - h) Etxeko animalien aurka erabilitako indarkeria, adingabeen edo kalteberen aurrean, baita desgaitasun psikikoa duten pertsonen aurrean ere, edo edozein gizarte-komunikabideren bidez zabaltzea.
  - i) Zehapen-espeditzea izapidetu aurretik edo izapidetzen ari den bitartean jokabide arau-hauslea etetea.
  - j) Arau-hausleak agintaritzaren eskudunarekin lankidetzan jardutea, gertakariak argitzeko eta kaltetutako ondasuna itzultzeko.
  - k) Urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago berriro egitea, administrazio-bidean ebazpen irmoz hala deklaratu denean.
  - l) Arau-haustearen erantzukizun-mailan eragin dezakeen beste edozein inguruabar aringarri.
1. Bi arau-hauste edo gehiagoren erantzuleari arau-hauste bakoitzari dagozkion zehapen guztiak ezarriko zaizkio.

Boilar Kalea, 12, Ozaeta (Áraba)

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelkeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
F0144708b02810060b807e80e8090c3bx



**Barrundiako Udala**  
Ayuntamiento de Barrundia

2. Egitate batek edo horien multzo batek arau-hausteen larritasun-maila handiagoko arau-hauste bat sortzen badute, dagozkion zehapen bakoitzari larritasun-maila gutxiagokoak aplikatuko zaizkio.

## IX. TITULUA

### ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

#### **38. artikulua.- Erregimen orokorra.**

1. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien titularrek ordenantza honetan ezarritakoa eta titulu honetan araututako araubide espezifikoa bete beharko dituzte.
2. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira, basa-faunakoak izanik, etxeko animalia gisa erabiltzen direnak, haien oldarkortasuna edozein dela ere, pertsoneri edo beste animalia batzuei heriotza edo lesioak eragiteko gaitasun handiagoa duten espezie edo arrazetakoak direnak, baita ondasunei kalteak eragiten dizkietenak ere.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira, halaber, araudi bidez zehazten diren etxeko animaliak, eta, bereziki, arraza-tipologia baten barruan dauden txakurrak, baldin eta, beren izaera oldarkorra, tamaina edo masailezurraren potentzia dela-eta, pertsoneri edo beste animalia batzuei heriotza edo lesioak eragiteko gaitasuna badute eta ondasunei kalteak eragiten badizkiete.

#### **39. artikulua.- Arriskutsua izan daitezkeen animalia edukitzeko lizentzia.**

